# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4414

*AGINDUA, 2022ko irailaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Organismo Autonomoen Berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko zenbait kide kendu eta izendatzeko dena.*

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta 3/2007 Lege Organikoak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduera-esparrua arautzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen 83/2010 Dekretuaren 73. artikuluak eta Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmen Kolektiboaren 83. artikuluak ezartzen dute beharrezkoa dela berdintasun-plan bat egitea.

2016ko ekainaren 30ean, negoziazio-mahaietan Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren testua adostu zen, eta 2016ko urriaren 19ko EHAAn argitaratu zen, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren eta Erakunde Harremanetarako sailburuordearen irailaren 6ko 13/2016 Ebazpenaren bidez.

Plan horren seigarren atalean Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren sorrera ezartzen da. Batzorde horrek erreferentea izan behar du berdintasuna funtzio publikoari lotutako alderdietan eta eginkizunetan txertatzeko, eta, bereziki, plana bera ezartzeko gaietan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko uztailaren 16ko Aginduaren bidez, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren osaera aldatu zen. Harrezkero beste aldaketa batzuk egon direnez, beharrezkoa da izendapenak eguneratzea eta haren osaeraren berri ematea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3. artikuluak, 2.2.k) artikuluan, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra sail horri atxikitzen dionez, honako hau.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko kide hauek kargutik kentzea, honela:

Administrazioaren ordezkariak:

Ordezko batzordekideak:

Jesus Aguirre Gorostiza jauna.

Langileen ordezkariak:

Batzordekide titularrak:

Estibaliz Encinas Abal andrea.

Ordezko batzordekideak:

Usoa López Población andrea.

Rosalía Hernández Sánchez andrea.

2. artikulua.– Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko kide hauek izendatzea, honela:

Administrazioaren ordezkariak:

Ordezko batzordekideak:

Jon Kirru Iparraguirre Burgoa jauna.

Langileen ordezkariak:

Batzordekide titularrak:

Rosalía Hernández Sánchez andrea.

Ordezko batzordekideak:

Raquel Álvarez López andrea.

Miren Itxaso Azurmendi Zofio andrea.

3. artikulua.– Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren osaeraren berri ematea, ordezkarien artean izandako aldaketak barne. Batzordekideak hauek izango dira:

Administrazioaren ordezkariak:

Batzordeburu titularra: Jon Aguirre Huerga jauna.

Ordezko batzordeburua: Juan Maria Barasorda Goicoechea jauna.

Batzordekide titularrak:

Joseba Pérez de Heredia Arbigano jauna.

M.ª Inés Álvarez Vázquez andrea.

Leire Goiburu López andrea.

Ordezko batzordekideak:

Nerea Eguiluz Aizpurua andrea.

Jon Kirru Iparraguirre Burgoa jauna.

Oro Ochoa de Eribe Landa andrea.

Langileen ordezkariak:

Batzordekide titularrak:

Asunción Gómez Castro andrea.

Izaskun Fernández Otegi andrea.

Rosalía Hernández Sánchez andrea.

Pilar Olivas Hernández andrea.

Ordezko batzordekideak:

Ainhoa Mendizábal Bañales andrea.

Unai Uriarte López jauna.

Raquel Álvarez López andrea.

Miren Itxaso Azurmendi Zofio andrea.

Idazkaria:

Leire Eileen Legorburu Fernández andrea.

Ibai Amillategi Omaetxeberria jauna (ordezkoa).

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu hau jakinaraztea kargutik kendutakoei, izendatutakoei eta Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrari, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 20a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.